



HEZKIDETZA, JAKINTZAK ETA ZIENTZIA

EMAKUMEEN JAKINTZAK BIGARREN HEZKUNTZAKO
GELETAN ZIENTZIA BESTE IKUSPEGI BATZUETATIK
EGITEKO TRESNA GISA

Online ikastaroa

2020ko maiatzaren
4tik ekainaren 18ra
20 ordu

PROGRAMA



1. BLOKEA

Berdintasunik eza nerabezaroan eta zientzian. Sarrerako hainbat gai.

- ✕ GENEROA, ERAIKUNTZA SOZIAL HUTSA
- ✕ EGUNGO ZIENTZIA NOZIOA BERRIKUSTEA ETA KUESTIONATZEA
- ✕ HEZKUNTZA EREDUA: HEZIKETA MISTOA VS HEZKIDETZA
- ✕ SISTEMA ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAN EMATEN DIREN HAINBAT GENERO-DISKRIMINAZIO

2. BLOKEA

Zientzia egiten duten emakumeak. Emakumezko baserritarrek egunerokoan egiten dituzten hainbat lanek barne hartzen duten zientzia.

- ✕ IKUSGAITASUN EZA BIKOITZA: EMAKUMEENA ETA BEREN JAKINTZARENA
- ✕ ZIENTZIA BESTELAKO BEGIRADATATIK
- ✕ ZIENTZIA BARNE HARTZEN DUTEN EMAKUMEEN EGUNEROKO LANGINTZEN HAINBAT ADIBIDE
- ✕ ETA MUTILAK? GEHIEGIZKO IRUDIKAPEN MASKULINOA EMAKUMEEN IKUSGAITASUN EZAREN AURREAN
- ✕ JAKINTZEN IKUSPEGIA CURRICULUMEN EDUKIETAN TXERTATZEAREN HAINBAT ADIBIDE

3. BLOKEA

Hezkuntza formalean zientzia bestelako begiradatik lantzeko proposamenak.

- ✕ TEORIA APUR BAT: SORKINEN IKUSPEGI PEDAGOGIKOA
- ✕ HITZETATIK EKINTZETARA: JARDUEREN PROPOSAMENAK
- ✕ ZENBAIT GILTZARRI METODOLOGIKO



IKASTARO HONEK:

Helburu du zientzia ulertzeko bestelako ikuspegiak ezagutaraztea, emakumezko zientzialariak eta emakumeen jakintzak ikusgai egiten dituen eta pertsonen eta naturaren zaintzak gure gizartearentzat duen garrantzia aintzat hartzen duen zientzia bultzatuz. Hezkuntza formalaren, hezkidetzaren eta gizarte eraldaketaren esparruetako eragileekin lankidetzarako elkar gune bateratzeko asmoa du, eta eduki teorikoak eta praktikoak landuko dira.

NORI ZUZENDUA:

Bigarren hezkuntzako irakasleak, hezkidetzaren eta gizarte eraldaketaren esparruetako eragileak, eta baita gaian interesa duen edonor ere.

FORMATUA ETA HIZKUNTZA:

Ikastaroa taldearen parte-hartzea sustatzen duten zenbait online tresnaren bitartez garatuko da. Hala, proposamenak posta elektronikoko bitartez helaraziko ditugu, entzungaiak eta irakurgaiak erabiliz; sare sozialak erabiliko ditugu zalantzak, baliabideak eta hausnarketak partekatzeko; eta lau webinar egingo ditugu (maiatzaren 6an eta 19an, ekainaren 2an eta 16an, 17.30etatik 18.30etara), taldean eztabaidatzeko eta edukiez jabetzeko aukera ematen duen plataforma bat erabiliz. Gainera, gure bloga eta zabalkunde-kanalak ikasleen eskura jarriko ditugu, banaka edo taldeka garatu dituzten baliabide didaktikoak argitara ditzaten, hala nahi badute. Ikastaroa gaztelaniaz izango da baina material gehienak bi hizkuntzatan banatuko ditugu (euskara/gaztelania).

INSCRIPCIONES:

formulario bidez

Apirilaren 27ra arte edo plazak agortu arte



www.sorkinsaberes.org

#konZIENTZIATUrik

#conCIENCIADas

Finantzatzaile:

